

Kutxabank bisitatu du Deusto Business School-eko ikasle talde batek

- **Talentu espezializatua erakarri, sustatu eta mantentzeko Bankuak egin duen apustu estrategikoaren baitan egin da ekimena**

2022ko martxoaren 24an. Kutxabankek Deusto Business School-eko azken ikasturteko 30 ikasleren bisita jaso du gaur goizean. Hauek aurrez-aurre ezagutu ahal izan dute hainbat arlo desberdinetan Euskadiko lehen finantza erakundeak egin ohi duen lana. Gainera, langileekin, talde espezializatu desberdinekin eta zuzendaritzako kideekin hitzegiteko eta iritzi-trukea egiteko aukera izan dute.

Ate irekietako jardunaldia talentu espezializatua erakarri, sustatu eta mantentzeko Bankuak egin duen apustu estrategikoaren baitan egin da, Kutxabank enpresa dinamiko eta berezia aukera erakargarria izan dadin beren laneratze-prozesuan.

Gogoratzekoa da azken bost urteetan Kutxabankek **350 profesioaletik gora** mugagabe kontratatu dituela talentua bereganatzeko prozesu zabalean, Erakundearentzat erabakigarriak diren zenbait eginkizun indartzeko.

Bisita honetan, ikasle-taldeak Kutxabanken bulego nagusia ezagutu du, bai eta Banka Pertsonaleko, Marketineko, Negozioaren Garapeneko, Giza Baliabideetako, Finantza-zuzendaritzako eta ESGko zuzendaritzako alorrak ere. Hauetan egiten den lan espezializatua xehetasun handiagoz ikusi dute, eta alor bakoitzak garapen profesionalerako eskaintzen dituen aukerak ezagutu dituzte.

Xehekako Negozioaren zuzendari nagusiarekin, **Eduardo Ruiz de Gordejuelarekin** izan duten bileran, Erakundearen egitasmo estrategikoa ezagutu dute. Gaur egun, Bankua merkatuko lider da bere negozio-ildo nagusietan, berrikuntza, digitalizazioa eta arreta pertsonala ardatz dituen negozio-ereduaren bidez, bere inguruan balio ekonomikoa eta soziala sortzeko konpromisoa mantentzen duen bitartean.